

FILOSOFIA MARXISTAREN KONTRA

Ni materialista handia naiz materiakoa naizelako, eta de-
rigorrean oso lotuta bizi naiz neure arazo materialei, batez
ere neure ekonomiaren gorabeheri, baina nik ez dut materia
printzipio unibertsaltzat hartzen. Nire izkribuak irakurri ditue-
nak badaki nola naizen ni sobrenaturalista, hau da, denaren
printzipioa sobrenaturala da nire filosofian. Eta hasiera horre-
tatik jada ni ezin etor naiteke bat marxismoarekin.

Marxek filosofia oso bat eraiki zuen, eta nik ezin onartu
dezaket haren materialismo garbia, ni sobrenaturalista naiz,
badakit zer esaten dudana, natura materialaren gainetik sines-
ten dut badagoela beste kosmos bat sobrenaturala, guk ikus-
ten ez duguna, insensiblea zaigu, eta gainera izan dira teista
famatuak, Aristoteles kasu, Jainkoaren probidentziarik ez zute-
nak ikasten inon, eta hala ere gure filosofoa teista zen, jakina
den moduan. Eta hierarkia erlijiosoak eman izan duen ejem-
ploarekin, seguru Jainkoa agertu ez zaionean, eta hori da his-
toriaren parterik handiena, konprenitzekoa da erreakzioa erli-
jioaren kontrakoa. Baina nik hori konprenitzen badut, eta fe-
dedunak eskandalosoak izan badira ere, horregatik ni ez naiz
apartatzen fededunengatik Marxek teorizatutakoaren moduan.
Gure Jainkoa probidentziala delako, nire izkribuetan aztertu
izan dudana moduan. Eta isilik geratu daiteke denbora mor-
duan, eta orduan gizona ilunpeetan erortzen da, salbuespenak
salbu. Eta ilunpeetan materialismo beltza ere teorizatzen da,

eszeptizismoa, nominalismoa, kantismoa (kritizismoa), materialismo dialektikoa, positibismoa, existentzialismoa eta hola.

Ni orain ari naiz materialismo dialektikoarekin, eta logika dialektikoak dio ezen gauza bat dela eta ez dela. Baina hortik abiatuta ezin desarroilatu daiteke zientziarik. Zientziak behar du ez kontradikzioaren printzipioa, nahiz hori gertatu hipotesi bezala, baina hola funtzionatzen du. Beraz, dialektikan ere ni ezin etor naiteke konforme filosofia marxistarekin.

Gero hor dugu filosofia marxistaren historiaren filosofia, materialismo historikoa. Adanen eta Noeren garaietatik gizona sakabanatu da planeta osoan eta materialismo kulturalak erakusten duen moduan molde aunitzetan egokitu da lurralde diferenteetan, kondizio materialek eragin nabarmena eduki dutelarik moldatzeetan. Eta izan diren kulturetatik bat da orientala, basamortuetan garatua hasieran, pribazio handiengatik, beraz, eta hor ez da hasten historia unibertsala eta bai kultura orientalaren historia partikularra. Eta asko zabaldu bada ere, planeta osoa hartuz, ezin esan daiteke egiazki kultura unibertsala denik. Eta Marxek klase gizartearen historia egiten duelarik ez du aintzat hartzen kultura orientala unibertsala ez delako konstatazioa.

Marxismoak nahi du filosofia osoa izatea, eta beraz ezin geratu daiteke etika barik, izanik epikureismotik hartua etika hori, baina hor ere ni ez nago ados eta oposatu egiten diot etika epikureo horri lanaren kultura, zeren lanak oparotasuna baitakar, eta pribazioak gaitz aunitz badakartza oparotasunak onurak ekartzen ditu. Nire etika, beste aldetik, sobrenaturalista da.

Zentratuz kultura kapitalistan, niretzat kultura orientalaren azken adierazpena, Marxek oso ondo deskribatzen du termino ekonomikoak erabiliz, kultura horren funtsa, eta agian hor badu zer esaterik, eta asko, gaur egun ikusten den moduan, baina humanismo integral baten alde gaudenok Maritaineri jarraituz oraingoan, humanismo kristaua dugunok, nik diot, ez

dugu ahaztu behar kultura orientala dela gurea, gaurko egunean nagusi dena planeta osoan.

Gero hor dugu berdintasunaren hizpidea, etorriko omen den iraultza sozialistarekin. Baina iraultzetan falazia asko teorizatzen dira, eta bat da berdintasunarena, zeren begiak zabalik pixka bat edukita, plaza agerian adibidez, argi ikasten da ezen denok garela diferente, eta hortik hierarkiak egin ahal izatea eta egitea, ageri-agerian edo dismulateak, baina hierarkiak. Eta hor ere ni ez nator bat marxismoarekin.

Iraultzak izan daitezke, opresio jasanezin baten ondorio zuzena izan daiteke, baina falazietan erortzen ez bada, orduan sendoagoa izango da hortik datorkeen antolamendu politikoa. Bistan dago.

Beraz, eta amaitzeko, marxismoa filosofia osoa izatea nahi duelarik orduan huts egiten du, nik sobrenaturalismoa oposatu egiten diot materialismo garbiari, eta orduan marxismoa geratzen zait teoria politikoa bezala, kapitalismoaren analisi egiazkoa askotan egiten duena, hor badiot etorkizunik ikusten, baina materialista dialektikoa baino materialismo kulturaren aldekoa naiz, eta orduan kultura kapitalista ikusten dut kultura orientala dela, gaur eguneratua, baina kultura orientala. Eta bilatzen dut erdiko neurria, eta ikusten dut gaur egun badagoela teorizazio nahikoa planeta honetan argitasunakin jokatzuz gero gure arteko bizikidetza hobetzeko, eta horri sinpatia diot. Nonbait badut marxismoan egiaren haziak ikasten, baina arriskua dago filosofia horren sasiak hazi horiek itotzeko eta akabatzeko.

Azken batean Jainkoari bizkarra emanez bidea motza izaten da, filosofian ere.

Roman Garmendia